

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 686

*EBAZPENA, 2025eko urtarrilaren 30ekoa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, zeinaren bidez aldatzen baita Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkari-tza duten gizarte-eragileek, beren jarduera-eremuan, 2025eko ekitaldian kompetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatze-ko prozedura sustatu eta bultzatzeko jarduerak gara ditzaten dirulaguntzak emateko Balorazio Batzordearen osaera.*

Hezkuntzako sailburuaren 2024ko abenduaren 11ko Aginduaren bidez (2024ko abenduaren 18ko EHAA, 245. zk.), Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkari-tza duten gizarte-eragileek 2025eko ekitaldian kompetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatze-ko prozedura sustatu eta bultzatzeko jarduerak beren jarduera-eremuan garatzeko dirulaguntzen deialdia egin zen.

Agindu horren 11.2 artikulua eskabideak baloratzeko Batzordearen osaera ezartzen du. Bat-batean Balorazio Batzordearen osaera aldatze-ko beharra sortu denez, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lorea Piñeiro Fernandez, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako teknikaria, edo haren ordezkaria izendatzea Balorazio Batzordeko bokal, Argiñe Lopez Poblacionen ordezkari.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako ondorioak izan ditzan eta jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 30a.

Lanbide Heziketako sailburuordea,  
JON MIRENA LABAKA INTXAUSPE.